

udalainformatzen

**Kultura, ongizatea,
zahartze aktiboa eta
euskara sustatzeko espazioa**





Jexux Leonet Elizegi
Alkatea

Kaixo oiartzuar:

Legealdi honen amaieran gaude eta iritsi da balorazioa egiteko unea. Emankorrek izan dira lau urte hauek. Proiektu garrantzitsuak jarri ditugu martxan eta hasi gara dagoeneko egindakoaren uzta jasotzen.

2019an hauteskundeak irabazi eta udal gobernu osatu genuenean herritar guztien ongizatea bermatzeko lan egingo genuela hitzeman genuen. 70 konpromiso eta 182 lan-lerroko kudeaketa plana onartu genuen horretarako. Anbizio handiko programa osatu genuen, erronka ezberdinei erantzuna emateko. Gogor egin dugu lan eta lortu dugu hasieran aurreikusitako proiektu denak egitea. Emandako hitza bete dugu beraz.

Etorkizuneko erronkei erantzuteko prest dagoen herria dugu. Bizilagunen behar eta eskaerak asetzeaz gain, datozen urteetan gai estrategikoetan jarraitu beharreko bidea marraztu dugu. Elkar zaindu eta guztiok batera aurrera egiteko proiektuak martxan jarri ditugu. Oiartzungo ekonomia sustatzeko inbertsioak egin ditugu. Energia eta elikadura burujabetza lortzeko aurrerapauso garrantzitsuak eman ditugu. Herri feminista bat lortzeko plana onartu dugu. Mugikortasun eredu jasangarriagoa izateko bidea egin dugu...

Oiartzungo behar nagusiei erantzuna emango dien etxea ere eraiki dugu: Landetxe. Urte luzez amestutako proiektua martxan jarri dugu. Zalantzarik gabe, herriko bizitza aldatuko duen espazioa izango da, oiartzuarren topagune berria. Elkar ezagutu, saretu eta batera lan egiteko aukera emango digu.

Arlo ezberdinetan lortu nahi ditugun helburuak zehaztu ditugu eta hauek betetzeko eman beharreko pausoak ere definitu eta ematen hasi gara. Etorriko diren erronka berriei erantzuteko egoera ekonomiko onean dago udala. Legealdi honetan udalak zuen zor guztia itzuli dugu eta egin ditugun proiektuak mailegurik eskatu gabe ordaindu ditugu. Herritarren dirua ongi kudeatzea ezinbestekoa baita guretzat.

Lorpenez gain, bereziki pozten gaitu hauetara iristeko jarraitu dugun bideak. Hasiera-hasieratik argi izan dugu herria hobetzeko bide bakarra elkarlana dela; udalak eta herritarrek batera lan egin behar genuela Oiartzun justuagoa, duinagoa, feministagoa, euskaldunagoa eta jasangarriagoa erdiesteko.

Zehaztu dugu datozen urteetan jarraitu beharreko bidea eta definitu dugu lan egiteko modua. Zinegotzi batzuk jarraituko dute. Beste batzuk etorri ginen tokira itzuliko gara; herriko elkarte eta eragileetara. Udaletxetik batzuk eta herriko eragileetatik beste batzuk, jarrai dezagun guztiok batera Oiartzun hobeto bat eraikitzen. Jarrai dezagun elkarrekin ametsak egi bihurtzen.

Eskerrik asko azken zortzi urteetan Oiartzungo alkate izateko ohorea eskaintzeagatik.



Puedes pedir la revista en castellano

Aunque la revista Udala Informatzen se reparte en euskera, también existe la versión en castellano. Puedes pedir que te la enviemos en el ayuntamiento, llamando al 943 49 01 42 o mandando un email a komunikazio@oiartzun.eus.

udal albisteak

Goza dezagun Landetxez!

Martxoaren 10ean ireki zituen atea herriko bizitza eraldatuko duen bizileku berriak.

Urte luzez amestutako espazio bat jaio da herrian. Lan luze eta ederren ostean, Landetxe sortu da, oiartzuar guztion etxe berria.

2016an hasi zen Udala proiektua hezurmamitzen. Oiartzunek zituen behar estrategikoak aztertu eta lau lehentasun identifikatu zituen: kultur aretoa, zahartze aktiboa sustatzeko jubilatuentzako egoitza berria, euskara indartu eta eragile guztiak elkartuko zituen espazioa eta gizarte zerbitzuak eta zaintza erdigunean jartzeko azpiegitura egokiak. Lau lehentasun horiek izan dira Landetxe sortzeko oinarria.

Elkarrekin amestu, gozatu eta lan egiteko gunea izan nahi du Landetxek. Herrigintza indartu eta herriko ehuna artikulatzen jarraitzeko bitartekoa. Oiartzuarren aterpe berria.

Parte-hartzean oinarritutako proiektua

Obra eta eraikina bera baino garrantzitsuagoa izan da Udalarentzat proiektu osoa hasieratik herritarrekin elkarlanean definitzea. Horretarako arloz arlo parte-hartze prozesu emankorrak eta aberatsak jarri ditu martxan:

Kultur eragileekin aretoa diseinatzeaz gain, Oiartzungo kultur eredu propioaren inguruko hausnarketa abian da. Euskalgintzako solairua bertako eragileekin elkarlanean diseinatu zen, haien premietara egokitzeko. Jubilatuen beharrak ezagutzeko parte-hartze prozesua egin zuen Udalak.



IKUSI
INAUGURAZIO
EKITALDIKO
LABURPENA



Oiartzuarren artean ilusioa piztu du Landetxek

Herriko bizitza eraldatuko duen espazio berriari ongietorria egin eta oiartzuarrek eraikina ezagutzeko egitaraua antolatu du martxoan Udalak. Hilaren 10ean egin zuten inaugurazio ekitaldia. Herriko eragile guztietako kideek bete zuten aretoa. Zazpi urteko proiektuaren ostean, nabari zen jendearen ilusioa eta poza. Emozioz beteriko ekitaldia izan zen.

Hurrengo eguneko ate irekietan jendez lepo egon ziren eraikinaren korridore denak. Udal zinegotziak egon ziren orain arteko prozesuaren eta etorriko denaren azalpenak ematen. Normalean itxita egongo diren zenbait gune ere ezagutzeko aukera izan zuten hurbildu zirenek: kamerinoak, kontrol gela, aldagelak...

2.000 pertsonak bisitatu dute dagoeneko Landetxe. Elkarlanerako gogoia piztu du herriko estalpe berriak. Oiartzun hobetzen jarraitzeko tresna garrantzitsua izango dela argi dago. 18. mendean Urdinolatarren palazioa zegoen Landetxe eraiki den tokian. Orain beste palazio bat egin dugu; euskararen, kulturaren, ongizatearen eta zaintzaren palazioa. Guztion artean zaindu eta bizia eman behar diogu honi. Orain hasten da dena. Goza dezagun Landetxez eta bere etorkizunak ez dezala sabairik izan!




Kultura, ongizatea, zahartze aktiboa eta euskara sustatzeko espazioa

Lau zutabeko bizilekua sortu da Oiartzunen. Lau zutabek eusten dute Landetxe: ongizateak eusten du, euskalgintzak eusten du, adinekoek eusten dute eta kulturak eusten du.

1. Landetxeren lehen zutabea **ongizatea** da.

Landetxeren batuko da aurrerantzean euskalgintza eta horri esker geratuko da libre Fermiñene etxea, Ongizate gaietarako. Plazara ekarri nahi izan du Udalak, hain zuzen, ongizatea. Herrigintzaren funtsezko zutabetariko bat delako. Itzaletik argira, plaza erdira, denontzat bizigarri eta bizi-emaile izan dadin.



Bertan kokatuko da udaleko ongizate-saila. Zerbitzu hobea eskaintzeko toki gehiago eta egokiagoa izateaz gain, saila plazan bertan dagoen eraikin oso batean kokatuta, ikusgarritasuna, zentralitatea eta protagonismoa emango zaizkio. Irailetik aurrera zerbitzua bertan kokatzea aurreikusten da.

2. Landetxeren bigarren zutabea **euskalgintza** da.

Gune argitsu eta zabala izango du aurrerantzean euskalgintzak. Ahots ezberdinak batuko dira, arnas bera hauspotzeko.

Bigarren solairuan kokatuko dira udaleko Hizkuntz normalizaziorako sailaz gain, herriko euskalgintzako eragile ezberdinak: AEK, Ttur-ttur, Oiartzun Irratia eta UEMA. Denak espazio berean batuz, proiektu berriak sustatu eta eragileen arteko harremanak indartu nahi dira, euskaraz biziko den herria izan gaitzen.

3. Landetxeren hirugarren zutabea **adinekoen aktibazioa** da.

Jubilatutako pertsonen topaleku ere izango da Landetxe. Elkar ezagutu, saretu eta gozatzeko aukeren plaza. 173 metro kuadroko eremua izango dute herriko erretiratuek eraikineko lehen solairuan. Egongela handi bat, tailer gela, ile-apaindegia eta podologia zerbitzua ditu. Tailerrak, kultur ekintzak, hitzaldiak, formakuntza saioak, txapelketak... egingo dira bertan.

Herriko jubilatuekin lanean aritzen diren eragileek elkarrekin kudeatuko dute espazioa. Erretiratu guztientzat irekita egongo da eta edonork izango du proposamenak egin eta ekintzak antolatzeko aukera.

4. Landetxeren laugarren zutabea **kultura** da.

Kulturarentzat erliebe berri bat du gaurtik herriak. Herriko kulturgile eta kulturzaleen topagune izango da Landetxe. Oiartzungo kultur eskaintza sendotzeko bide emango du eta kulturgintza eredu berriaren akuilu izango da. Kulturgintza herritarra, herrigilea, parte-hartzailea, horizontala, sortzailea, inklusiboa feminista eta euskalduna izango ditu oinarri Landetxek eta Oiartzunek.

Urte luzez amestutako aretoak 249 eserleku ditu. Harmailak automatikoki ireki eta gordetzen dira, eta jasota daudenean 600 pertsonentzako tokia du auditorioak.



EZAGUTU
LANDETXE
BARRUTIK



■ udal albisteak

Gurutzerainoko zatia bukatuta, zortzi auzoak lotzen ditu bidegorriak

Mugikortasun osasuntsua sustatzeko pauso garrantzitsuak eman ditu Udalak legealdi honetan ere.



Gurutze eta Elizalde auzoak lotzeko bidegorria zabalik dago. 2019an Karrikaraino luzatu zuten bidegorria eta orain Gurutzeraino egin dute. Horrela, herriko zortzi auzoetara iristen da bidegorri sarea.

2,5 kilometroko luzera du bide berriak. Gurutzeko aparkalekutik abiatu, Malkorra hotelaren atzealdetik Fraileen Bideraino doa eta hortik Legarre kalera. Ibillbide guztia argiztatu du Udalak. 635.000 euroko inbertsioa egin da.

14 kilometroko bidegorri sarea

Egunero-egunero ehundaka lagunek erabiltzen dute Oiartzungo bidegorria. Mugikortasun eredu jasangarrirako azpiegitura izateaz gain, jarduera fisiko osasuntsua bultzatzeko espazioa da. Paseoan, korrika edo bizikletan ibili nahi duenak aukera zabala du herrian. Gurutzerainoko zatia eginda, 14 kilometro ditu Oiartzungo bidegorri sareak. Gipuzkoan kilometro gehien dituen herrietako bat da.

Joan-etorriak, oinez edo bizikletan

Herri barruan mugikortasun osasuntsua bultzatzea da Udalaren helburu nagusia. Ibilgailuen erabilera eta hauek sortzen duten kutsadura gutxitzeko, aukera ezberdinak eskaini nahi izan ditu Udalak azken urte hauetan egindako proiektuekin.

Bidegorri eta oinezko bide berriekin, herritarrak auzoen artean oinez edo bizikletan joatea erraztu nahi du.

Ikastetxeetara, lanera edo erosketak egitera ere oinez joateko bultzatu nahi du Udalak. Horretarako espaloi berriak egin ditu azken urtean (Ikastolatik Urmendira edo Makarraztegi poligonora joateko, besteak beste). Zenbait errepidetan autoen norantzak ere aldatu ditu, oinezkoen segurtasuna handitzeko (Tronpeoko maldan) edo bizikletentzat bide berriak egiteko (Elorrondo kalean, kiroldegi parean). Herriko punta batetik bestera oinez edo txirriandian erraz joateko aukera eman nahi izan du.

Auzoguneetan ere, oinezkoek lehentasuna

Auzoetako plazetan eta Elizaldeko kale nagusietan ere oinezkoek lehentasuna izateko lanak egin ditu Udalak. Altzibar biziberritzeko proiektuan, plaza eta inguruko kaleetan autoen joan-etorriak eta abiadura murrizteko lurzoru berezia jarri da. Done Eztebe plazatik Landetxera doan Yon Oñatibia etorbidea ere peatonala izango da aurrerantzean.



Xorrola eta Taxibusaren ordutegiak zabaldu dira

Herri barruan garraio publikoan mugitu ahal izateko, Xorrola eta Taxibus zerbitzuak larunbatetara zabaldu ditu Udalak legealdi honetan. 2022ko Xanistebanetan gauetan ere herriko zortzi auzoak lotu zituen Xorrolak. 342.000 euroko inbertsioa egiten du urtero Udalak Xorrola eta Taxibusa eskaintzeko.

Urtez uzte handituz doa zerbitzu hauen erabilera. 78.865 bidaiari izan zituen Xorrolak 2022an, 2021ean baino 3.800 gehiago (urte betean %5 igo da). Taxibusak 4.800 bidaiari izan zituen.

Oiartzundik Donostiara autobus zerbitzua hobetzeko eskaera

Ibilgailu pribatuak alde batera utzi eta garraio publikoaren erabilera sustatzeko ezinbestekoa da Oiartzundik Donostiara joateko autobus zerbitzua zabaldu eta hobetzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiarena da herrien arteko autobus zerbitzua antolatzeko eskumena. Azken urte hauetan bi zerbitzu berri jartzeko eskatu dio Udalak Aldundiari: Oiartzundik Donostiara doan autobus zuzena eta Oiartzundik ospitalera doan bestea. Aldundiak erantzunik eman ez badu ere, bi linea hauek jartzeko lanean jarraituko du Udalak.

Oiartzungo Bidegorri Sarea



udal albisteak



Bertako produktuen kontsumoa bultzatzeko, 'HemenGuk' euskarriak

Elikadura burujabetza eta lehen sektorea indartzeko proiektuak martxan ditu Udalak.

Oartzungo janari dendetan saltzen diren herriko ekoizleen produktuak zein diren jakiteko 'HemenGuk' pegatina eta pintzak atera ditu Udalak. Bertako produktuei balioa eta ikusgarritasuna eman eta hauen kontsumoa bultzatu nahi du horrela.

Herriko 13 janari dendetan Oartzungo 16 ekoizleren produktuak zein diren erraz identifikatzeko aukera egongo da hemendik aurrera. Erosleek bertako produktuak zein diren jakitea eta hauek erostea erraztu nahi du Udalak. 'HemenGuk' logotipoarekin egongo dira markatuta. Oartzungo produktuak direla bereizteko hiru euskarri mota egin ditu: ontziratuta dauden produktuei jartzeko pegatinak, baldetarako euskarriak eta fruta edo barazki kaxetarako pintzak.

Elikadura burujabetza, helburu estrategikoa

Udalaren helburu estrategikoa da elikadura burujabetzan aurrerapausoak ematea. Herritar askeak izateko, ezinbestekoa da jaten duguna ere bertan ekoiztea. Elikagaiak Oartzunen sortu eta kontsumitzeko proiektu ezberdinak jarri ditu martxan azken urte hauetan.

2021ean sortu zuen 'HemenGuk' marka, herriko ekoizleekin elkarlanean. Bertako produktuak balioan jarri eta etxekoa erosteko kontzientziazioa egin nahi dute. Hiru hilabetero azoka ere egiten dute, oartzuarrek bertako ekoizleen produktuak erraz eskuratzeko aukera izan dezaten.



Herriko jangelak bertako produktuekin hornitzeko proiektua

Herriko hiru ikastetxeetako jantokietan eta zaharren egoitzan ehundaka pertsonak jaten dute egunero. Menu hauetan herrian sortutako produktuak txertatzeko aukera aztertu du Udalak Labore Oarsoren laguntzarekin.

Jangeletan erabiltzen diren lehengaiak zein diren, zenbat behar diren, herrian bertan sortzen diren, ekoizteko aukera badagoen eta zein preziotan ikertu dute. Orain arte erabiltzen diren hornitzaileak hurbileko baseritarrekin ordezkatzeko aukera eskaini nahi du Udalak.

Urmendi Haur Eskolan hasi dira dagoeneko jantokiko 110 menuetan bertako eta garaian garaiko produktu ekologikoak bakarrik erabiltzen. Prezioa 14 zentimo besterik ez da garestitu.

Jangela bakoitzaren egoera eta abiapuntua ezberdina denez, herriko produktuak txertatzeko eman daitezkeen pausoak kasuz kasu lantzen jarraituko du Udalak ikastetxeekin batera.

Lehen sektorea bultzatzeko dirulaguntzak

Azken urteetan lehen sektorerako egokiak diren lurrak eskuratzeko inbertsioak egin ditu Udalak. 40.000 m²-ko zabalera duten eremuak bereganatu ditu. Herrian lehen sektoreko proiektu berriak martxan jartzen laguntzea da helburua, lur hauek interesa duten pertsonei utzita. Oiartzunen bertan ekoizten diren elikagai kopurua handitu nahi du. Honi esker dagoeneko martxan daude baratza eta nekazaritza egitasmo berriak.

Lurrak erosteaz gain, lehen sektoreko ekoizleentzat dirulaguntza lerroa ere sortu du. Azken bi urte hauetan 58.000 euro banatu ditu herrian dauden ustiatgien inbertsioak eta gastuak ekonomikoki laguntzeko.



■ udal albisteak

Etkez etxeko laguntza zerbitzua, kalitatezkoa eta guztiontzat

Urteko 365 egunetan zerbitzua emateko lantaldea handitu du Udalak.

Zaintza behar duten herritarrak eta haien familiak laguntzea da udalaren etxeko zerbitzuaren helburu nagusia: beraien autonomia behin-behinean galdu duten pertsonak, pixkanaka autonomia galtzen ari direnak (ahal den gehien norberaren etxean bizitzen jarraitzeko), bazterkeria egoeran daudenak, adikzioak dituztenak, adingabeen zaintzan laguntza behar dutenak (guraso edo tutoreek zaintza egokia ematerik ez dutenean), osasun mentaleko arazoak dituztenak... Beraien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetu eta etxeko kontziliazioa erraztea ditu helburu zerbitzuak.

Asteburuetara ere zabaldua, urteko 365 egunetan eskaintzen dute zerbitzua. Laguntza behar duenarentzat berdin baita igandea edo osteguna izan.

95 oiartzuarrek jaso zuten laguntza 2022an

Etkez etxeko langileek 95 herritar lagundu zituzten 2022an. 68 dira orain zerbitzua jasotzen ari direnak. Oiartzungo 68 etxeetan bizitza xamurragoa da beraz profesional hauen lanari eskez.

Laguntza behar duten herritarren ongizatea eta lasaitasuna bermatzea da beraien lehentasuna. Kasu bakoitzeko beharren azterketa egiten du Ongizate Sailak eta premien arabera egokitutako zerbitzua zehazten da: jaikitzen edo oheratzen lagundu, janzen, errutinak sortzen eta mantentzen, garbiketan, otorduak prestatzen, erosketetan,

paseotxo ematen edo konpainia egiten. Laguntza integrala, profesionala, humanoa, gertukoa eta konfiantzazkoa ematen dute, eguneroko bizitza errazagoa egiteko.

Udal langile profesional ez osaturiko taldea

Oiartzun da etxeko laguntza zerbitzua udal langileekin eskaintzen duen Gipuzkoako herri bakarrenetarikoa. Lan-taldea osatzen duten kide guztiak dira udal langile prestatuak.

Ongizate saileko taldeak ematen du zerbitzua. 19 pertsonak osatzen dute etxeko ekipoaren muina: etxebizitzetara astegunetan joaten diren 11 langileek, asteburuetako biek, zerbitzuaren koordinatzaileak eta urtean zehar ohikotasunez taldekoen oporrak eta beste beharregatik ordezkapenak egiteko beste bostek. Ongizate Saileko gainerako kideen lana ere ezinbestekoa da kalitatezko zerbitzua emateko: administrariena eta gizarte langileena. Guztien artean ematen dute oiartzuarren bizi kalitatea bermatzeko funtsezkoa den laguntza hau.

Laguntza behar duenak zabalik du atea

Beharra izan dezakeen edonork edo informazio gehiago nahi duenak ongizate sailera deitu edo idatzi dezake (943 49 05 52; gizarte@oiartzun.eus) edo udaletxean bertan galdetu. Herritarren eskura dago zerbitzua.



■ udal albisteak

Auzotarrentzat gune estalia izango du Altzibarrek

Uda amaieran hasiko ditu Udalak frontoia egiteko lanak.

Altzibarrek gune estali bat izango du laster. Bizilagunak elkartzeko, jolasean ibiltzeko, kirola egiteko edo festarako aterpea izango da. 30 metro luzeko frontoi estalia egiteko proiektua martxan du Udalak. Aldagelak, komun irekiak eta harmaila txiki batzuk ere izango ditu.

Olaldeko zelaia, eremu egokiena

Azpiegitura berri hau egiteko espazioa erabakitzerakoan baldintza asko hartu dira kontuan: frontoi handi bat eraikitzeko nahikoa leku egotea, inpaktu bisual txikia izatea, iristeko erraza den tokian egitea eta erabiliko duten pertsonen segurtasuna bermatzea (errepide ondoan ez egotea).

Olalde ondoko zelaiko eremuak betetzen ditu baldintza horiek guztiak. Bertan mendiak duen altuera aprobetxatu eta bere erliebearen ondoan egingo da frontoiko pareta nagusia, horrela inguruarekin integratuta gelditzeko. Trafikorik ez du tokiak eta bidegorria bertatik pasatzen da.

Inguruan dauden etxebizitzetatik ahalik eta urrutien egitea lehenetsi da (etxeetatik 30 metrora egongo da). Espazio berriak berdeguneak eta mahaiaik ere izango ditu.



Auzotarren adostasuna

Udazkenean egindako auzo bileran aurkeztu zuen Udalak proiektua eta bertaratu ziren altzibartarren adostasuna izan zuen.

1.000.000 euroko inbertsioa egingo du Udalak gune hau egiteko. Proiektua idazketa fasean dago orain (irudi hauek ez dira behin-betikoak) eta obra lanak udazkenean hasita aurreikusten da.

Altzibartarrek hainbeste amestu duten gune estalia geroz eta gertuago dago beraz.



■ udal albisteak

Elkar entzuteko eta bizikidetzara eraikitzearen elkargunea

Otsailan inauguratu zituzten Arizmendieneako 'Oroimenaren Txokoa' eta 'Oartzun Oroimena' webgunea.



Hamarnaka lagun gerturatu ziren otsailaren 4an Udalak antolatutako Oartzungo Oroimenaren Txokoaren aurkezpen ekitaldira.

2018an hasi ziren Udalean ordezkariak duten bi alderdi politikoak herri mailan bizikidetzara sustatzeko Oartzunen eta oartzuarrek hamarkada luzeetan izandako Giza Eskubideen urraketan oroimena eta egia berreskuratzen. Horretarako Kattin Txiki herriko memoria Elkartearen eta Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntza izan dute. Azken urte hauetan hiru aitortza ekitaldi ere antolatu dituzte.

Otsaileko ekitaldiarekin borobildu zuten orain arteko ibilbidea: gertatutakoaren testigantzak eta informazioa jasotzen duen webgunea eta biktimen guztien aitortzara eta erreparazioarako Oroimenaren Txokoa aurkeztu zituzten. Giza eskubideen urraketa guztiak azaleratu eta bizikidetzaren oinarri sendoak jarri nahi dituzte horrela, gertatutakoa ez dadin berriz errepikatu.

oiartzunoroimena.eus webgunea

Gure herriaren historia zati bat 'oraindik isilean' dagoela esan zuen Jexux Leonet alkateak. Zenbait gertakari 'etxe sulkaldea' gelditu dira, ez dira aipatu, ez dira prentsan agertu, ez dira dokumentatu. Kontatzen ez dena gertatu ez dela dirudi, eta horregatik, gertaera horiek bildu eta oiartzunoroimena.eus webgunean jaso dituzte.

Webgunea irekia eta bizia da. Gertatutakoaren ahalik eta argazkirik zabalena eta osatuena ateratzea du helburu eta horregatik, oraindik irekita dago testigantza eta informazio gehiago emateko aukera.

Arizmendieneako lorategia, Oroimenaren Txoko

Erreparazio eta aitortzaren bidean herritarren elkargunea izango den Oroimenaren Txokoa inauguratu zuten Arizmendienea etxe lorategian. Oartzungo herriaren memoriaren gune bilakatu nahi dute, hausnarketarako eta enpatiarako txokoa, isilarazi eta ezkutututako sufrimendu horientzako atsedengune. Gatazkaren ertz ezberdinak ikusarazi, indarkeria politikoak eragindako sufrimendua aitortu eta egiaren konplexutasuna dimentsionatzeko.

Antton Mendizabalen 'Iragorri' obra jarri dute bertan eta Alaia Martinek bi bertotan jaso du txokoaren zentzua. Obraren ondoan idatzi dituzte.

Bizikidetzara mahaiko kideek adierazi zuteneguz, egia, aitortza eta erreparazioaren bidea ez da bukatu; asko da oraindik ezagutu beharrekoa, asko isildutako bizipenak eta istorioak, asko aitortu gabeko urraketak eta minak, asko erreparatu gabeko zauriak. Horregatik, bide horrek aurrera jarrai dezan herritarrekin batera pausoak emateko konpromisoa hartu zuten.

■ udal albisteak

Kiroldegiko gihartze-gelan makina berriak jarriko ditu Udalak

177.000 euroko inbertsioa egingo du 40 gailu erosteko.

Elorsoro kiroldegiko gihartze-gela guztiz berrituko du Udalak. Lurra aldatu, bi guneak banatzen dituen horma kendu eta gela margotzeaz gain, bertako makina guztiak berrituko ditu. Erabilera eta denboraren ondorioz zahartzen joan dira eta beraz indar-entrenamendurako ekipamendu osoa aldatuko du.

Sektorizatutako hogei makina (bular eta sorbaldako press, prentsa hankak, abduktore/aduktore duala, abdominalena...), geltoki anitzeko bi makina eta pisu libreko entrenamendua egiteko ekipamendua jarriko ditu.

Gihartze-gelako gailuez gain, entrenamendu kardiobaskularreko guneko hamaika bizikleta estatiko, hiru eliptiko eta eskailerak eskalatzeko bi makina ere berrituko ditu.



Abuztuan egingo da aldaketa

177.333,45 euro bideratuko ditu makina berriak erosteko: 114.504,45 € indar-entrenamendurako ekipamendua aldatzeko eta 62.829,01 € kardiobaskularreko makina berrietarako.

Abuztuan egiten den bi asteko geldialdia aprobetxatu nahi du Udalak lan hauek egin eta makina berriak instalatzeko, zerbitzuan etenik egon ez dadin.

KirolTxartela Mugiment, arrakastatsua

Otsailaren 1ean sartu zen Udala KirolTxartela Mugiment programan. Honi esker, Elorsoroko bazkideek Euskal Autonomia Erkidegoko beste 88 udalerrietako kiroldegia doan erabili ditzakete; Donostia, Errenteria, Pasaia edo Lezokoak, besteak beste.

Arrakastatsua izan da hasiera eta lehen hilabete honetan dagoeneko 40 bazkide oiartzuar joan dira beste herrietako kirol instalakuntzetara ariketa fisikoa egitera.

udal albisteak



2050 urterako ikuspegia izango du Oiartzungo Klima eta Energia planak

Martxan da Oiartzungo Klima eta Energia plana egiteko prozesua. Epe luzeko ikuspegia izango du planak eta 2030, 2040 eta 2050 urteetarako Udalak eta herriak energia arloan bete nahi dituen helburu estrategikoak eta hauek betetzeko ekintzak jasoko ditu. Plana mugarria izango da trantsizio energetikorako Udalak martxan duen ibilbidean, orain egindako lanari jarraipena eman eta aurrera begirako erronkak zehaztu eta lehentasunak identifikatuko baititu.

Beste zaintza eredu bat aldarrikatu dute

Adin eta errealitate ezberdinetan ditugun beharrak asetzeko beste zaintza sistema bat aldarrikatu zuten martxoaren 8an herriko mugimendu feministak antolatutako manifestazio ekitaldian. Udal ordezkariak eta hamarnaka herritarrek bat egin zuten deialdiarekin. Zaintza zerbitzu eta azpiegiturak indartzea, zaintza beharrak finantzatzeko laguntzak ematea, zaintzaileak zaindu eta babestea eta zaintza sare publiko komunitarioa egonkortzeko indar egitea eskatu zuten.



Bidegorriko zuhaitzak identifikatzeko 82 kartel

Gure inguruko zuhaitzak identifikatu, bereiztu eta izendatzen ikasteko euskarriak jarri ditu Udalak bidegorrian. Arbola bakoitzaren ondoan karteltxo bana jarri du hostoaren marrakia, izen zientifikoa, euskarazko izena eta jatorria zehaztuz. Ugaldetxoko llastiko tuneletik hasi eta Altzibarko zubirainoko tartean dauden zuhaitzak zein diren azaltzeko 82 euskarri jarri ditu. Herriko ikastetxeetako ikasleek, Eskola Agenda 2030 proiektuaren baitan egindako eskaera bat ere izan zen hau.



plenoak

2022/12/20.

Lehen sektoreko 33 proiektu diruz laguntzeko 46.908,98 € banatuko dira.

Oiartzungo lehen sektoreko proiektuak sustatzeko 46.908,98 € banatu eta ordaintzea erabaki zuten. 2022ko abenduaren 1a bitarte egon da dirulaguntzak egiteko epea eta 33 eskaera aurkeztu dira. Hauek aztertu eta oinarrietan ezarritako irizpideen baitan egin da banaketa.

2023an Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzen diren dirulaguntzak banatzeko oinarriak ere onartu zituzten. 43.250 € emango dituzte.

Oinherri Elkarteak bazkide laguntzaile izatea adostu zuten. 2017an sortu zen Oinherri Elkartea herri hezitzaileak egituratu eta sustatzeko. Hurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea du helburu. Bidez-bidez eta Bide-lagun programen 2022 urteko gastua onartzea eta ordaintzea adostu zuten (54.400 €). Landa ingurunean eta sakabanaturik bizi diren biztanleen bizitza kalitatea hobetu nahi da bi programa hauekin. Abenduko protokolo gastuak 236 € izan ziren, loreak, eskelak, bazkari eta luntxetan.

2023/01/25.

Egoera ekonomiko larrian dauden herritarrak diruz laguntzeko deialdiaren oinarriak onartu dituzte.

Egoera ekonomia larrian dauden norbanako eta familientzako dirulaguntzak banatzeko oinarriak onartu zituzten ahabatez. 115.000 € bideratuko ditu Udalak 2023an pertsona hauek babesteko. Gainera, zailtasunak eta babesgabetasun arrisku egoeran dauden adingabeak eta haien familientzako dirulaguntzak ere adostu zituzten. Beste 30.000 euro gorde ditu Udalak honetarako.

Urmendi Haur Eskolak 0-3 urteko haurren zikloa garatzeko 2023an 798.000 euroko ekarpena jasotzea onartu zuten.

Oiartzungo kirol elkarte eta klubuen funtzionamenduan laguntzeko 2023ko dirulaguntza eta oinarriak ere ahabatez onartu ziren. 54.000 € bideratuko ditu Udalak laguntza horietara.

Kultura sustatzeko herriko elkarte ezberdinekin Udalak dituen hitzarmenen baitan 2023an egingo dituen ekarpenak ere adostu ziren. 93.300 € jasoko ditu Soinuenea Fundazioak eta 63.737,99 euro Luberri Ikasgune Geologikoak.

Ibargain Musika eskolari 2022-2023 ikasturtean egingo zaion ordainketa ere zehaztu zuten. 85 ikasle ditu ikasturte honetan eta horren baitan 97.700 euroko dirulaguntza jasoko du.

2023ko udalaren kontratazio-plana onartu zen. Aurreikuspen honetan, legeak zehazten dituen erregulazio armonizatuko kontratuek gain, aurreikusi daitezkeen beste kontratuak ere gehitu ditu. 2023rako kontratu-jarduera ezagutarazi nahi du Udalak horrela, gardentasuna areagotu eta enpresei aukera emateko udalaren beharrak aurretik ezagutzeko. Udalaren kontratatzailearen profileen eta Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratuko da informazioa.

Abenduko protokolo gastua 1.956,59 € izan zen lore, eskola, jardunaldi eta bazkari-luntxetan. Urtarrilean 109,78 € izan ziren, ikurrina, garaikur, plaka eta oparietan.

2023/03/01.

2023 urteko aragintza-plana onartu du Udalak.

Dagoeneko indarrean dauden sei ordenantza egokituko dituzte, tartean hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua, etxeko animalien babesa, herri barruko bideetan trafikoa eta segurtasuna eta herritarren artean sortzen diren bizikidetzaz-azalaz irtenbideak arautzen dituzten ordenantzak. Bi berri sortzea ere aurreikusi dute: energia elektrikoa, gasa eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioetako tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik lortutako onurengatik ordaindu beharreko tasa zehazteko eta Oiartzunen egingo diren planen eta proiektuen eragin linguistikoaren ebaluazioa egiteko prozedura definitzeko.

Udalerrian hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantza berriari hasierako onarpena ere eman zioten EH Bilduko zinegotzien aldeko bozkekin. Estatuak onartutako hondakinen araudi berrira egokitze egingo da aldaketa.

Eneritz Arbelaitz alkateordeak azaldu zuenez, "oso poztekoa" izan da ikustea Estatu lege berriaren ondorioz kudeaketa egoki eta efizientea lortzeko jasotzen diren neurri proposamenak Oiartzunen "aspaldi martxan" ditugula. 2010 urtetik apustu indartsua egin da herriko hondakinen kudeaketa hobetzeko. Honi esker, hondakinen gaikako bilketa %20 izatetik %80 izatera pasa dela gogorarazi zuten. Lege berriak zehazten dituen etxeko lanak "eginak ditugu". Bilketa efizientea egiteko atez ateko sistema proposatzen du Estatu araudiak, autokonposta eta auzokonposta bultzatu behar direla zehazten du, murrizketa planen garrantzia aipatzen du... "Guk aspaldi hasi genituen lan larroak" dira. Herrian egindako lana "zoriontzekoa dela berresten du lege berriak eta bide honetatik jarraitzeko indarra ematen digu".

EAJko zinegotziak abstenitu egin ziren. Janire Mitxelena taldeko bozeramaileak adierazi zuenez, "ordenantza egokitu aurretik azterketa sakon bat egin behar da gaur egungo sistema bideragarria den edo ez jakiteko eta beste formula batzuk aztertzeko".

Landetxe eraikin berriko obraren likidazioa onartu zuten aho batez. 6.538.508,75 euroko kostua izan dute lanek, lizitazioan aurreikusi zen kopurua. Jexux Leonet alkateak eman zituen azalpen ekonomikoak. "Proiektuaren lizitazioa egin zenean 6.500.000 euroko inbertsioa izango zela kalkulatu genuen. Esleipena 5.500.000 euroan egin bazen ere, aurreikusi ezin ziren lanen eta KPlaren igoera dela eta 6.538.508,75 eurokoa izan da kostua; hasieran egin genuen estimazioa bete dugu beraz".

2023an gizarte larrialdietarako laguntzaren zenbatekoa eta emateko irizpideak ere adostu zituzten. 93.825 euro bideratuko dituzte.

Herriko ikastetxei 2022-2023 ikasturtean eskola kirola, eskola pilota, Muittu! eta orduz kanpoko hainbat ekintza sustatzeko 52.775,43 euroko laguntza ematea erabaki zuten.

Otsaileko protokolo gastuak 508,20 € izan ziren; 242 € jardunaldi eta aurkezpenetan eta 266,20 € inprenta, diseinua, web orri gastuetan.



iruditan



Gabon kantak kantari



Gabon kantak kantari



Gabon kantak kantari



Olentzero eta Maridomingiren ongetoria



Aiazko Harrira irteera



Elkartasun bertso saioa



Joanes etxera lasterketa herrikoia



Joanes etxera lasterketa herrikoia



HM Eskolaren kalebuelta



Kontxa Murgia oroitzen



Mare poesia liburuaren aurkezpena



Atsolorra prestatzen



Ihoteak



Ihoteak



Ihoteak

iruditan



Ihoteak



Kuestazioa



Kuestazioa



Kuestazioa



Kuestazioa



Kuestazioa



Kuestazioa



Kuestazioa



Kuestazioa



Inauteriak



Erraldoi txikien entsegu orokorra



Wikimarkoak egitasmoaren aurkezpena



Zuhaitz Eguna



Zuhaitz Eguna



Kalakan eta Nayade abesbatzaren kontzertua



iruditan



AlAren murala bidegorrian



HemenGuk udaberriko azoka



Amalur saria Arantxa Zapirainentzat



Emakumeen nazioarteko eguna



Filosofia amaitu gabea liburuaren aurkezpena



Nerabezeroaren kultura tailerra



Landetxeren inaugurazioa



Landetxeren inaugurazioa



Landetxeren inaugurazioa



Landetxeren inaugurazioa



Landetxeren inaugurazioa



Landetxeren inaugurazioa



Landetxeren inaugurazioa



Landetxeren inaugurazioa



Landetxeren inaugurazioa

iruditan



Landetxeren inaugurazioa



Landetxeren ate irekiak



Landetxeren ate irekiak




Landetxeren ate irekiak



Landetxeren ate irekiak



Landetxeren ate irekiak




Landetxeren ate irekiak



Landetxeren ate irekiak



Landetxeren ate irekiak



Landetxeren ate irekiak



Landetxeren ate irekiak



Kukai Dantza Taldearen ikuskizuna



Kukai Dantza Taldearen ikuskizuna



Landetxe haurrei erakusten



Landetxe haurrei erakusten



DATA	ORDUA	EKINTZA	LEKUA	ANTOLATZAILEA
01, 22, 29	12:00	Arizmendienea bisita gidatua (aurretik erreserbatu behar da: 943 494 521)	Arizmendienea etxe museoan	Udala
01-16	-	Hika ikastaroan izenematea	https://labur.eus/hGEJQ	Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunea
01	09:00-13:00	Eskola Kirolako jardunaldia	Kirol instalazioetan	Udala
03-18	09:00-11:00	Ikastaroa: 'Google aplikazioak zure smartphonean' (gaztelaraz)	KZgunean	KZgunea
06-10	-	Palentziako Mendialdera irteera	-	Girizia Mendi Taldea
08, 09, 15, 16	10:00, 11:00, 12:00, 13:00	Arizmendienea bisita gidatua (aurretik erreserbatu behar da: 943 494 521)	Arizmendienea etxe museoan	Udala
15	10:00	Arditurriko tren berdea	Doneztebe plazatik	Arditurri Parketxea
15	21:00	Barrikotea	Elorsoero kiroldegian	Sare eta Artaso
16	19:00	'Magma mia!' antzezlan (Bea Egizabal)	Landetxe kultur aretoan	Oiartzungo antzerkizaleak eta Udala
18	16:30-20:10	Odol ematea	Manuel Lekuona bibliotekan	Odol Emaitzen Elkarte
18	20:00	Irakurketa taldea: "Sofia Petrovna" (Lidia Txukovskaia)	Manuel Lekuona bibliotekan	Udala
19	09:00-11:00	Ikastaroa: 'Programa informatiko onenak jaitzi' (gaztelaraz)	KZgunean	KZgunea
19, 22, 26, 29	10:00	Done Eztebe elizara bisita gidatua (aurretik erreserbatu behar da: 943 494 521)	Done Eztebe elizan	Udala
19	18:00	Hitzaldia Azken Borondateei buruz (elebitan)	Udaletxeko areto nagusian	Killirikupe Emakume Taldea
20, 27	18:00-19:30	Hika ikastaroa	Kiroldegiko bilera gelan	Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunea
21	09:00-11:00	Ikastaroa: 'Informatika hodeian. Ezagutu zer den hodeia' (gaztelaraz)	KZgunean	KZgunea
21	20:00	'Anderea' dokumentalaren emanaldia eta Yolanda Mazkianaren zuzendariekin solasaldia	Landetxe kultur aretoan	Oiartzungo zinegileak eta Udala
22	09:00-13:00	Eskola Kirolako jardunaldia	Kirol instalazioetan	Udala
22	10:00	Txori kantuak ezagutzeko ibilaldia	Arditurri	Gipuzkoako Parketxe Sarea
23	12:00	Muxikoak	Doneztebe plazan	HELTA
24	09:00-11:00	Ikastaroa: 'Canva. Ikasi diseinatzen' (gaztelaraz)	KZgunean	KZgunea
24	17:00	Lur Kortaren ipuin kontaketa 4 urtetik goitiko haurrentzat	Manuel Lekuona bibliotekan	Udala
25	09:00-11:00	Ikastaroa: 'Google Calendar. Zure denboraren kudeaketa hobetu' (gaztelaraz)	KZgunean	KZgunea
27	18:30	Ostegun feminista: '918 Gau' filma eta Arantza Santesteban zuzendariekin eta Leire Bilbao Susako editorearekin solasaldia	Landetxe Kultur Aretoan	Udala
30	12:00	HM eskolaren kalebuelta	Elizalden	Soinuenea